

ARIKETAK

1 Ondorengo perpausetan aukera bikoitza ematen dizuegu izenordainei dago-kienez: forma arruntak eta indartuak. Bada, 16. orriko artikuluan jasotakoa kontuan, aukera ezazue formarik egokiena.

G
R
A
M
A
T
I
K
A

- a Guk/Geuk ez dugu egingo, hori zuzendariaren lana da eta.
- b Zuek/Zeuek nola antolatu behar duzue ikastaroa?
- c Nire/Neure zerbitziburua da, baina zurea/zeurea ere bai.
- d Guk/Geuk irabaziko dugu, ez zalantzarik izan!
- e Azter dezagun txostena gure/geure artean, argitara atera aurretik.
- f Galdetu zure/zeure buruari ea zergatik ematen dizuten horrenbeste lan.
- g Aizu, gutunak eta gainontzekoa nire/neure kontul!
- h Nik/Neuk behinik behin ez dut hitz egin gabe alde egingo.
- i Zuek/zeuek, mutilok, adi ibili ordenagailu berriekin!
- j Nik/Neuk den-dena prestatuko dut, baina hortik aurrera ezer ez.

2 Eman euskaraz ondoko definizio hau. Lehenengo eta behin, jatorrizko testu-rik orpoz orpo eta, bigarrenik, definigai laburtua erabiliz (ikus 18. orriko artikulua).

H
I
T
Z
E
Z

H
I
T
Z

Un recurso es un medio de impugnación que persigue un nuevo examen de una resolución judicial, recaída en un proceso, pero mediante un procedimiento distinto.

Orpoz orpo

.....
.....

Jokabide klasikoa erabiliz (definigai laburtua)

.....
.....

A R I K E T A K

- 3 Eman euskaraz ondoko definizio hau. Lehenengo eta behin, jatorrizko testutik orpoz orpo eta, bigarrenik, aditza (DIRA) aurreratuz (ikus 18. orriko artikulua).

Se entiende por ingresos las cantidades que obtiene una empresa por la venta de sus bienes o servicios durante un periodo determinado.

Orpoz orpo

Jokabide klasikoa erabiliz (aditza aurreratuta)

Jokabide klasikoa erabiliz (definigai laburtua)

- 4 Eman euskaraz ondoko definizio hau. Lehenengo eta behin, jatorrizko testutik orpoz orpo eta, bigarrenik, definigai laburtua erabiliz (ikus 18. orriko artikulua).

Presupuesto es un documento contable que presenta la estimación anticipada de los ingresos y gastos relativos a una determinada actividad u organismo, para cierto periodo de tiempo.

Orpoz orpo

Jokabide klasikoa erabiliz (definigai laburtua)

A R I K E T A K

5 Orain arteko formulekin emandako definizio hauek eman jokabide klasikoak erabiliz.

a) Hona hemen zein den tasa honen zergagaia: Euskal Autonomia Erkidegoko jabetza publikoko ondasunak nori beretzat erabiltzea edo aprobeixamendu bereziren bat egitea. (aditza aurreratuz)

b) Zergagai diren administrazio-jarduerak edo zerbitzuak eskatu edo jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak dira tasa honen subjektu pasiboak. (definigai laburtuaren bidez)

c) Lege honek Euskadiko Guztizko Diruegitamauk, eta bereziki horien edukia, egitura, egiterapen-iharduera, eraentza eta egiterapena, horiekiko kontu-garbitasuna eta, hala baledi, horien luzapen-jaurpidea araupetzea du xede [sic]. (aditza aurreratuz)

S O L U Z I O A K

GRAMATIKA

1 Ariketa

a Guk b Zuek c Nire/Zeurea d Geuk e gure f zeure g neure h Neuk i Zuek j Nik

HITZEZ HITZ

2 Ariketa

Un recurso es un medio de impugnación que persigue un nuevo examen de una resolución judicial, recaída en un proceso, pero mediante un procedimiento distinto.

Orpoz orpo

Errekurtsua prozesu bateko ebazpen judiziala berrito aztertzea lortu nahi duen, eta hori lortzeko beste prozedura zehatz bat erabiltzen duen **aurkatze-bidea da**.

edo

Prozesu bateko ebazpen judiziala berrito aztertzea lortu nahi duen, eta hori lortzeko beste prozedura zehatz bat erabiltzen duen **aurkatze-bidea da errekursua**.

Definigai laburtuaren bidez

Errekurtsua aurkatze-bide bat da, prozesu bateko ebazpen judiziala berrito aztertzea lortu nahi duena, eta hori lortzeko beste prozedura zehatz bat erabiltzen duena.

3 Ariketa

Se entiende por ingresos las cantidades que obtiene una empresa por la venta de sus bienes o servicios durante un periodo determinado.

Orpoz orpo

Diru-sarrerak enpresa batek aldi batean bere ondasunak edo zerbitzuak saltzeagatik lortzen dituen kantitateak **dira**.

edo

Enpresa batek aldi batean bere ondasunak edo zerbitzuak saltzeagatik lortzen dituen kantitateak **dira diru-sarrerak**.

Aditza aurreratuta

Diru-sarrerak dira enpresa batek aldi jakin batean lortzen dituen kantitateak bere ondasunak edo zerbitzuak saltzearen truke.

edo

Definigai laburtua

Diru-sarrerak diru-kantitateak dira, hain zuzen ere enpresa batek aldi jakin batean bere ondasunak edo zerbitzuak saltzearen truke lortzen dituenak.

4 Ariketa

Presupuesto es un documento contable que presenta la estimación anticipada de los ingresos y gastos relativos a una determinada actividad u organismo, para cierto periodo de tiempo

Orpoz orpo

Aurrekontua jarduera edo erakunde baten aldi jakin baterako diru-sarrerak eta gastuak aurreikusten dituen kontabilitate-dokumentua **da**.

Definigai laburtuaren bidez

Aurrekontua kontabilitate-dokumentu bat **da**, jarduera edo erakunde baten aldi jakin baterako diru-sarrerak eta gastuak aurreikusten dituena.

edo

Aurrekontua kontabilitate-dokumentu bat **da**, jarduera edo erakunde baten diru-sarrerak eta gastuak aurreikusten dituena aldi jakin baterako.

5 Ariketa

a) **Tasa honen zergagoia da** Euskal Autonomia Erkidegoko jabetza publikoko ondasunak nork beretzat erabilzea edo aprobetxamendu bereziren bat egitea.

b) Tasa honen subjektu pasiboak **persona fisikoak edo juridikoak dira**, hain zuzen ere, zergagai diren administrazio-jarduerak edo zerbitzuak eskatu edo jasotzen dituztenak.

c) **Lege honen helburua da** Euskadiko Aurrekontu Orokorra arautzea, bai eta bereziki horien edukia, egitura, prestatzeko modua, kudeaketa eta betearazteko era, aurrekontuen kitapena eta, hala badagokio, horien luzapen-erregimena arautzea ere.